



# UDALEKO ENPLEGU SUSTAPENENKO PLANA

## PROGRAMAREN IZENA:

## HERRIKO LANGABEEN KONTRATAZIOA

### HELBURUAK

- Herriko langabezia arintzea.
- Interes orokorreko hainbat lan burutzea

### DESKRIPZIOA

Programaren xedea da herriko langabeei Udalaren behar bereziak betetzeko Udalak berak lan kontratuak egitea. Kontratu hauekin, langabe horien egoera arintzeaz gain ( une bateko larritasun ekonomikoa, euren lan esperientzia osatzea, lan merkatuari lotuta egotea ...) interes orokorreko herriko beharretan inbertituko da (hobekuntza obrak, proiektu berrien abiatzea ,...). Udalaz kanpoko beste erakundeek jarritako diru kopuruari (Lanbide, Foru Aldundia, ...) Udalaren ekarpen ekonomikoa gehituko zaio programa honekin, kontratu kopuru gehiago egitea ahalbideratuz.

Guztira **35 bat kontratu** egingo ditu Udalak programa honekin. Dagoeneko batzuk hasita daude, beste batzuk izena emateko epea zabalik eta beste hainbat oraindik deialdia egiteko. Udalak kontratuen deialdiak argitaratuko ditu bere web orriko "lan eskaintza publikoa" atalean ( <http://www.arrasate-mondragon.org/eu/tramiteak/lan-eskaintzak> ). Interesatuak bertan kontsulta dezakete deialdi bakoitzaren egoera.

### IRAUPENA

Kontratu gehienek 6 hilabeteko iraupena izango dute, egun osoko jardunean.

### EGUTEGIA

Kontratu multzo bakoitzak bere erritmoa du, programaren arabera:

- Foru Aldundiko 26/2013 programako 5 kontratu: : 4basolangile eta talde buru 1. 2013ko azaroan hasi eta 2014ko maiatzaren 14an bukatu dira.
- Foru Aldundiko 41/2013 programako 5 kontratu: 3 basolangile eta 2 lorazain. 2014ko apirilaren 30ean hasi dira eta 2014ko urriaren 31an bukatuko dira
- Lanbide 2013 programako 13 kontratu: goi mailako 2 teknikari , erdi mailako 3 teknikari, 2 peoi, 3 pintore, igeltsero 1 eta lorazain 1. 2014ko ekainetik aurrera hasiko dira. Gehienak 2015ean bukatuko dira.  
Izena emateko epeak bi multzotan zabaldu dira:
  - Lehena 2014ko maiatzaren 28tik ekainaren 6 arte.
  - Bigarrena 2014ko ekainaren 16tik 23 arte.
- Udalaren Enplegu Sustapena 2014: 12 kontratu  
Aurreikusita dago 2014ko irailean hasia eta 2015eko martxoan bukatzea. Aztertzen ari dira Udal Sailen proposamenak, zein kontratu egin erabakitzeko.



# PLAN MUNICIPAL PARA EL FOMENTO DEL EMPLEO

## DENOMINACIÓN DEL PROGRAMA: CONTRATACIONES A DESEMPLEADOS/AS DEL MUNICIPIO

### OBJETIVOS

- Reducir el número de desempleados/as del municipio.
- Llevar a cabo obras, tareas y proyectos de interés general.

### DESCRIPCIÓN

El objeto de este programa es la contratación por parte del Ayuntamiento de desempleados del municipio, para la realización de tareas, obras o desarrollar proyectos de interés local. De este modo, además de mejorar la situación de las personas contratadas (disponer de ingresos durante un tiempo, aporte de experiencia laboral, inclusión en el mercado laboral...), se invertirá en necesidades del municipio (obras de mejora, lanzamiento de nuevos proyectos... Este programa es cofinanciado por Diputación Foral de Gipuzkoa, Gobierno Vasco y el propio Ayuntamiento de Arrasate.

En total el Ayuntamiento de Arrasate contratará 35 personas; algunos de estos contratos ya han comenzado, otros se hallan con la convocatoria abierta a inscripciones, y aún quedan 12 contratos pendientes de convocar.

El Ayuntamiento publica dichas convocatorias en su página web, en la sección de “ofertas de empleo público” (<http://www.arrasate-mondragon.org/es/servicios-online/oferta-de-empleo-publico>). Además, en este sitio web se puede consultar la situación de cada convocatoria.

### DURACIÓN

La mayoría de los contratos tendrán una duración de 6 meses y serán a jornada completa.

### CALENDARIO

Los contratos se agrupan en función del programa al que estén adscritos, a varios ritmos:

- Diputación Foral de Gipuzkoa 26/2014: 5 contratos (4 peones forestales y un encargado). Inicio en noviembre de 2013 y finalización el 14 de mayo de 2014.
- Diputación Foral de Gipuzkoa 41/2013: 5 contratos (3 peones forestales y 2 jardineros/as) Inicio en mayo de 2014 y finalización el 31 de octubre de 2014
- Lanbide 2013: 13 contratos (2 técnicos superiores, 3 técnicos medios, 2 peones, 3 pintores, 1 albañil 1 jardinero/a) Comenzarán a partir de junio de 2014. La mayoría finalizarán en 2015. El plazo de inscripción se ha dividido en dos turnos:
  - El primero desde el 28 de mayo y hasta el 6 de junio de 2014.
  - El segundo desde el 16 hasta el 23 de junio de 2014.
- Ayuntamiento de Arrasate, Plan de Empleo 2014: 12 contratos, en proceso de definición, previsto que comiencen en septiembre de 2014 hasta marzo de 2015. Próximamente se publicará la convocatoria correspondiente en la web del Ayuntamiento de Arrasate ” (<http://www.arrasate-mondragon.org/es/servicios-online/oferta-de-empleo-publico>)